

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Isidra Azkune

*Zumarraga
Gipuzkoa (1920)*

Aurkibidea



Biografia



Aratz erreka auzoko Atxumarria Azpikoa baserrian jaio zen, San Isidro egunean; horregatik jarri zioten Isidra izena. Hamabost urterekin neskame joan zen Azpeitira. Gerora, Zumarragara etorri zen, jostun lanetan aritzera, eta bertan geratu zen, senarra ere bertakoa baitzen.

Zintak

ZMG-017

- **Proiektua:** Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"

Pasarteak

1. Aita Madrilen morroi eta Bilbon meatzaritza lanetan

- **Erref:** ZMG-017/004
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:01:23. **Bukatu:** 00:03:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ama Zumarragako Iraberri baserrikoa zen eta aita sesterro lanetara Zumarragara etorri zenean ezagutu zuten elkar amak eta biek. Lehenengo 14 urterekin Madrilera morroi eta gero Bilbon meategian lan egin zuen aitak. Erdaraz pixka bat moldatzen zen. Aita eta amona Aratz Errekako Igara baserrikoak ziren. Senitartekoak aipatzen ditu.</p>

2. Dotrina ikasgai nagusi

- **Erref:** ZMG-017/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Eskolara ez zen batere joan, dotrina ikasi zuen soilik. Irakurtzen ez zekienez, gauean izebarekin ohera joan eta hark erreztatzen zizkienak ikasten zituzten. Iluntzetan arrosarioa errezzatzeko ohitura zuten.</p>

3. Koadernoetatik kopiauz idazten ikasi

- **Erref:** ZMG-017/006
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:07:03

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Aratz Errekan apaiza zegoen, eta harekin ikasten zuten dotrina. Idazten oso gutxi ikasi zuen. Koadernoetatik kopiauz ikasten zuten. Apaizak berak jakin arren ez zien gehiegi erakusten. Orduan, apaizari akolitoak laguntzen zion; inguruko baserri bateko mutil batek. Ixidrak ez zuen ohiturarik mezara joateko, etxean jolasean geratzen zen.</p>

4. 15 urterekin Azpeitira neskame

- **Erref:** ZMG-017/007
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:06:34. **Bukatu:** 00:08:45

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

15 urterekin neskame joan zen Azpeitira. Ez zegoen labdararik. Ondo tratatu zuten baina dirurik ez zuela irabazten eta urtebetara alde egin zuen handik. Gerora behar zutenean deitu eta joaten zen.

5. Zerbitzari Azpeitian apustu artean

- **Erref:** ZMG-017/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:11:05

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zerbitzari ere aritu zen Azpeitiko taberna batean. Emakumeak ez zuten tabernara sartzerik baina batzuk joaten ziren. Tabernaren izena aipatzen du eta han egiten ziren apustuak. Apustu zalea zen Azpeitiko jendea, aizkora apustu bat aipatzen du eta aizkolariak izendatu.

6. Zumarragan jostun lanetan

- **Erref:** ZMG-017/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Senarra Aiarra zuen eta Zumarragako Santa Ixabeletan ezagutu zuen. Kontxita orduan jostun lanetan aritzen zen Zumarragan. Neska asko biltzen ziren lanean eta oso ondo konpontzen ziren elkarrekin. Diru asko irabazi ez arren bizitzeko adina ateratzen zuten.

7. Erromeria baino etxeko giroa nahiago

- **Erref:** ZMG-017/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:17:10

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Antioko festa eguna oso ezaguna zen Zumarragan. Erromeria asko egiten ziren inguruko auzoetan baina Pakita ez zen dantza zalea izan sekula, etxeko giroa nahiago zuen. Kizkitzako egunez behin Mandubira joan zenekoa kontatzen du.

8. Aratz Errekan ezkondu eta Zumarragara bizitzera

- **Erref:** ZMG-017/013
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:21:08

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aratz Errekan ezkondu zen, eta, berehala, Zumarragara joan ziren bizitzera. Bi seme-alaba ditu, eta beste bi biloba. Jubilatu ondoreneko oroitzapen onak ditu, baina Pakita etxean eta gizona kanpoan ibiltzen ziren zenbait toki ezagutu zituen arren. Hondarribiko ibilera bat eta Bizkaiko buelta kontatzen ditu.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com